

Bizkaiko Foru Aldundiaren FORU DEKRETUA, zeinaren bidez, oinarri arautzaileak eta deialdia onesten baitira 2026ko ekitaldian arte plastiko eta ikusmen-arteen beketarako.

DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de becas de artes plásticas y visuales, para el ejercicio 2026.

Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailak, besteak beste, Bizkaian talentu artistikoa eta sortzailea sustatzea helburu duen kultura-politika planteatzen du. Horretarako, beharrezkotzat jotzen du sormen- eta arte-bokazioa duten pertsonen prestakuntzan inbertitzea, eta mundu osoan goi-mailako prestakuntza-programetarako sarbidea erraztea. Hori dela eta, foru dekretu honen xedea da bide egokia ezartzea interesdunek Bizkaiko Foru Aldundiaren kultura-arloko bekak eskuratu ahal izateko.

El Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia plantea una política cultural que tiene entre otros objetivos el fomento del talento artístico y creativo en Bizkaia. Para ello, ve necesario invertir en la formación de las personas con vocación creativa y artística, facilitándoles el acceso a programas formativos de alto nivel en todo el mundo, por lo que este decreto foral tiene por objeto establecer el cauce adecuado a través del cual las personas interesadas podrán acceder a becas en el ámbito cultural de la Diputación Foral de Bizkaia.

Horrela definitutako esparru horretan, Bizkaiko Foru Aldundiak, Kultura Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, urtero arte plastikoen arloan prestakuntza eta hobekuntzarako beken deialdia egiten du. Bigarren urtea da modalitate hori arte eszenikoen bekak (arte dramatikoa, musika eta dantza) arautzen dituen dekretu berezi batean arautzen dena.

En este marco así definido, la Diputación Foral de Bizkaia, a través de la Dirección General de Cultura, viene convocando, con carácter anual, becas de formación y perfeccionamiento en el área de las artes plásticas siendo este el segundo año que esta modalidad se regula en un decreto aparte al que regula las becas de artes escénicas (arte dramático, música y danza).

Testuinguru horretan, deialdi honen xedea arte

En este contexto, la presente convocatoria está





plastiko eta bisualen arloan bikaintasuna lortzeko espektatibak dituzten pertsonak detektatzea eta sostengatzea da. Horretarako, onuradun posibleen adinak mugatzen dira, uste baita goragoko adin-taldeek jada erdietsita eduki behar lituzketela arte-sorkuntzaren barruan proiektzioa izateko beharrezkoak diren lorpenak.

Proposatutako xedapen orokorraren gaiaren gaineko eskumena Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio. Euskal Autonomi Erkidego Osorako Erakundeen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.a).12 artikuluan xedatutakoarekin bat, lurralde historikoetako foru erakundeei eskumen eskusiboa dagokie, besteak beste, arlo hauetan: lurralde historikoaren titulartasunekoak diren eta Arte Ederrekin eta Artisautzarekin zerikusia duten artxibo, biblioteka, museo eta erakundeen arloan.

Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 29ko 131/2020 Foru Dekretuak, zeinak Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren egitura organikoari buruzko erregelamendua onesten duen, sail honi ematen dio Bizkaiko Lurralde Historikoko talentu artistikoa sustatzeko eskumena.

Era berean, xedapen hau izapidetzean printzipio hauen arabera jarduten da: premia eta eraginkortasuna, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna, azkartasuna eta efizientzia, bai eta erregulazio onaren printzipioei datzekien kontuak ematea ere, eta hori guztia Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura erregulatzen duen ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik. Azkenik, maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretua betetzen da,

dirigida a detectar y apoyar a personas con expectativas de lograr la excelencia en el ámbito de las artes plásticas y visuales. Para ello, se delimitan las edades de las posibles personas beneficiarias ya que se considera que los grupos de edad superior ya debieran haber obtenido los logros necesarios para tener proyección dentro de la creación artística.

La competencia sobre la materia objeto de la disposición de carácter general propuesta corresponde a la Diputación Foral de Bizkaia, tal y como se deduce de lo dispuesto en la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, atribuye a estos últimos competencias exclusivas en su artículo 7.a).12 entre otras, en materia de archivos, bibliotecas, museos e instituciones relacionadas con las Bellas Artes y Artesanía de titularidad del Territorio Histórico.

En este sentido, el Decreto Foral 131/2020, de 29 de diciembre, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte atribuye a este Departamento la competencia para promover el talento artístico del Territorio Histórico de Bizkaia.

Asimismo, en la tramitación de esta disposición se actúa de acuerdo con los principios de necesidad y eficacia, proporcionalidad, seguridad jurídica, transparencia, celeridad y eficiencia, así como el de rendición de cuentas inherentes a los principios de buena regulación y ello de acuerdo con lo establecido en artículo 3 del Decreto foral 87/2021, de 15 de junio, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones generales en la Diputación Foral de Bizkaia, y a lo establecido en el artículo 129 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, que





zeinaren bidez ezartzen baitira Bizkaiko Foru Aldundiaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak.

aborda iguales principios con carácter general. Finalmente, se cumple con lo establecido en el Decreto Foral 63/2019, de 28 de mayo, que establece los criterios de uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia.

Beste alde batetik, aurrerapen ekonomiko eta soziala lortzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak ezinbestekotzat jotzen du emakumeen eta gizonen berdintasuna benetan eta eraginkortasunez lortzeko bidean aurrera egitea eta ondore horretarako urte asko daramatza arlo horretan lanean. Ildo horretatik, dekretu honek genero-ikuspegia eta ikuspegi interseksionala txertatzen ditu, bai hura lantzean, bai aplikatzean, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena, eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan adierazten den bezala. Era berean, kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren 112/2024 Foru Dekretua, azaroaren 14koa, zeinaren bidez arautzen baita Bizkaiko Foru Aldundian generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa.

Por otra parte, y para lograr el progreso económico y social, la Diputación Foral de Bizkaia considera imprescindible avanzar en la consecución real y efectiva de la igualdad de mujeres y hombres y para ello lleva numerosos años trabajando ese campo. En esta línea, este decreto incorpora la perspectiva de género y perspectiva interseccional, tanto en su elaboración como en su aplicación, tal y como se señala en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres y en la Norma foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres. Además, se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto Foral 112/2024, de 14 de noviembre, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se regula la evaluación previa del impacto en función del género en la Diputación Foral de Bizkaia.

Halaber, araudi hori egiteko, honako txosten hauek egin dira:

Igualmente, en la elaboración de esta normativa se han emitido los siguientes informes:

- | | |
|---|---|
| 1. Genero-eraginaren Aurretiazko Ebaluazioa. | 1. Evaluación Preliminar del Impacto de Género. |
| 2. Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren txosten juridikoa. | 2. Informe jurídico del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte. |
| 3. Generoaren Eraginaren Aurretiazko Ebaluazioari buruzko txostena. | 3. Informe de Evaluación Previa del Impacto en Función del Género. |
| 4. Kontrol ekonomikoari buruzko txostena. | 4. Informe de control económico. |
| 5. Legezotasunari buruzko txostena. | 5. Informe de legalidad. |

Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta

El artículo 39.k) de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización,





Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.k) artikulua ezartzen du foru diputatuen eskumena dela, besteak beste, Foru Aldundiari proposamenak aurkeztea haien sailtako gaiei buruzko foru dekretuen proiektuak onar ditzan. Bestalde, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 16.1 artikulua ahalmena ematen dio Bizkaiko Foru Aldundiari diru-laguntzen emakida arautuko duten oinarriak onesteko. Eta Diru-laguntzen Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 41.1 artikulua aukera ematen du diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia batera izapidetzeko, eta ezartzen du Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluari dagokiola onartzea, egintza bakarrean.

Hori dela bide, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru-diputatuen ekimenez, eta aurrez Bizkaiko Foru Aldundiak azterturik, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra. *Foru Aldundiaren beken oinarriak eta deialdi publikoa onartzea.*

Onetsi egiten dira oinarri arautzaileak eta deialdia 2026ko ekitaldirako arte plastikoen eta ikusmen-arten beketarako.

Azken xedapenak

Azken xedapenetako lehenengoa. *Erregelamendu bidez garatzeko gaikuntza.*

1. Gaitu egiten da Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua, Foru Dekretu honetan xedatutakoa garatu, gauzatu eta aplikatzeko

Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, señala que compete a los Diputados Forales proponer a la Diputación Foral, para su aprobación, los proyectos de decreto foral en las materias propias de su Departamento; el artículo 16.1 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral habilita a la Diputación Foral de Bizkaia para aprobar las bases reguladoras de su concesión, y el artículo 41.1 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, establece la posibilidad de la tramitación conjunta de las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones, correspondiendo al Consejo de Gobierno su aprobación en un sólo acto.

En su virtud, a iniciativa de la diputada foral del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte, y previa deliberación de la Diputación Foral de Bizkaia,

DISPONGO:

Artículo único. *Aprobación de las bases y de la convocatoria pública de becas forales.*

Se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de becas de artes plásticas y visuales, para el ejercicio 2026.

Disposiciones finales

Disposición final primera. *Habilitación para el desarrollo reglamentario.*

1. Se habilita a la diputada foral del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte para dictar cuantas disposiciones considere





behar diren xedapen guztiak eman ditzan. Gaikuntza horren barruan sartzen da dagozkion bekak ematea.

necesarias para el desarrollo, ejecución y aplicación de lo previsto en el presente Decreto Foral. Esta habilitación incluye la concesión de las becas pertinentes.

2. Halaber, Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuari ahalmena ematen zaio eskabideak aurkezteko epea luzatzeko, baldin eta dagozkion sistemaren edo aplikazioaren ohiko funtzionamendua eragozten duen gorabehera teknikoren bat gertatzen bada, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32.4 artikuluan aurreikusia.

2. Asimismo, se habilita a la diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte para acordar la ampliación del plazo de presentación de solicitudes, en el caso de incidencia técnica que imposibilite el funcionamiento ordinario del sistema o aplicación correspondiente, previsto en el artículo 32.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Azken xedapenetako bigarrena. *Indarrean jartzea.*

Disposición final segunda. *Entrada en vigor.*

Foru Dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el "Boletín Oficial de Bizkaia".

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua / La diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte.
LEIXURI ARRIZABALAGA ARRUZA

Ahaldun Nagusia / La Diputada General. ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA





2026KO EKITALDIRAKO ARTE PLASTIKO ETA IKUSMEN-ARTEEN BEKEN OINARRI ARAUTZAILEAK ETA DEIALDIA.

BASES REGULADORAS Y CONVOCATORIA DE BECAS DE ARTES PLÁSTICAS Y VISUALES, PARA EL EJERCICIO 2026.

I. TITULUA

TÍTULO I

Xedapen orokorrak

Disposiciones generales

1. oinarria. *Beken xedea.*

Base 1. *Objeto de las becas.*

1. Deialdi honen xedea da Bizkaian egoitza duten artista berriei arte plastiko eta ikusmen-arten arloko sorkuntza artistikorako bekak ematea.

1. El objeto de esta convocatoria es la concesión de becas de creación artística en artes plásticas y visuales a artistas emergentes residentes en Bizkaia.

2. Proiektuak 2026ko irailaren 1etik 2027ko ekainaren 30era bitartean garatu beharko dira, eta gutxienez sei hilabeteko iraupena izan beharko dute.

2. Los proyectos deberán desarrollarse entre el 1 de septiembre del año 2026 y el 30 de junio del año 2027, y tener una duración mínima de seis meses.

3. Ikerketa eta irakaskuntzari lotutako zenbait proiektu ez dira inoiz kontuan hartuko eta, hortaz, ezingo dute bekarik jaso; hain zuzen ere, hauek dira: graduondoko ikastaroak, master mota guztiak, doktoretza-ikastaroak eta doktore-tesiak egitea. Halaber, ezingo dute dirulaguntzarik jaso erakusketek eta haiek eragindako gastuek (garraioa, katalogoak, etab.)

3. Quedan excluidos y no serán susceptibles de beca, en ningún caso, los proyectos relacionados con la investigación y enseñanza: cursos de postgrado, cualquier tipo de master, cursos de doctorado, y la realización de tesis doctorales, así como la realización de exposiciones y los gastos derivados de las mismas, como transporte, catálogos, etc.

4. Inola ere ez da diruz lagunduko proiekturik, tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruz indarrean dagoen araudiaren arabera edonolako diskriminazioa eragiten duenik.

4. En ningún caso se apoyará económicamente a proyectos que incurran en discriminación de cualquier clase de acuerdo con lo establecido en normativa vigente de igualdad de trato y no discriminación.

5. Foru-dekretu honen bidez arautzen diren bekak onuradunei dakartzkien zenbait gastu finantzatzeko erabiliko dira; hain zuzen ere, gastu hauek finantzatzeko:

5. Las becas a conceder, reguladas mediante el presente decreto foral, subvencionarán los gastos de las beneficiarias que a continuación se relacionan:

a) Onuradunak egiten dituen bidaien gastuak direla eta gehienez 1.000 euroko dirulaguntza emango da

a) Los gastos de viaje que se realicen por la beneficiaria serán subvencionables con un máximo de 1.000 €.





b) Onuradunak egiten dituen ostatu-gastuak Estatutik kanpoko proiektuetarako baino ezin izango dira diruz lagundu, eta gehienez ere 8.000 euroekin.

b) Los gastos de alojamiento que se realicen por la beneficiaria, sólo serán subvencionables para los proyectos a realizar fuera del Estado con un máximo de 8.000 €.

c) Proiektua garatzeko beharrezkoak diren materialaren eta tresnen gastuak. Kanpo geratzen dira gastu hauek: ekipo informatikoak erosteko gastuak, ikus-entzunezko materiala zein argazkilaritzako eta zinematografiako materiala erostekoak.

c) Gastos de material y útiles necesarios para el desarrollo del proyecto, a excepción de los derivados de adquisición de equipos informáticos, audiovisuales, fotográficos, y cinematográficos.

d) Proiektua gauzatzeko beharrezkoa den lokalaren errentamendua.

d) Arrendamiento de local para llevar a cabo el proyecto.

e) Artisten sormen eta dedikazio gastuak, gehienez, 7.000 € proiektuko.

e) Gastos por creatividad y dedicación de los y las artistas, con un máximo de 7.000 € por proyecto.

Deialdi honi dagokionez, gastuak diruz laguntzeko gastutzat joko dira, baldin eta zalantzarik gabe erantzuten badiote diruz laguntzen den jardueraren izaerari, guztiz beharrezkoak badira eta ezarritako epearen barruan egiten badira. Diruz lagundutako gastuen eskuratzeko-kostua ezingo da izan haien merkatuko balioa baino handiagoa.

Se consideran gastos subvencionables a los efectos de esta convocatoria, aquellos que de manera indubitada respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada, resulten estrictamente necesarios y se realicen en el plazo establecido. En ningún caso el coste de adquisición de los gastos subvencionables podrá ser superior al valor del mercado.

6. Foru-dekretu honen helburua pertsona eskatzaileen ekintzak babestu eta osatzea da; hori dela eta, ez dira inoiz finantzatzeko jarduerak egiteagatik sortutako gastu guztiak.

6. La finalidad del presente decreto foral será la de apoyar y completar la acción de las personas solicitantes, nunca la de financiar en su totalidad los gastos derivados de la ejecución de la actividad.

7. Beka hauek emateak eta haietaz gozatzek ez du ekarriko inolako kontratu- edo estatutu-loturarik ez lan- edo funtzionario-loturarik onuradunaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren artean.

7. La concesión y disfrute de estas becas no supone establecimiento de relación contractual o estatutaria alguna, ni supondrá vinculación laboral o funcional entre la beneficiaria y la Diputación Foral de Bizkaia.

2. oinarria. *Onuradunak.*

Base 2. *Beneficiarias.*

1. Foru-dekretu honetan araututako beken onuradun izango dira pertsona fisikoak eta talde artistikoak, azken horiek honela ulerturik: pertsona juridikoak izan gabe proiektu komuna

1. Podrán beneficiarse de las becas reguladas por el presente decreto foral las personas físicas y los colectivos artísticos, entendidos como agrupaciones de personas físicas que desarrollan





garatzen duten pertsona fisikoen elkartzak.

un proyecto común sin constituir persona jurídica.

Taldeko kide guztiek beren burua identifikatu beharko dute, eta deialdian ezarritako betekizun guztiak bete. Dena den, eskatzailea baino ez da hartuko bekaren onuraduntzat, administrazio-eta zerga-ondorioetarako.

Todos los integrantes del colectivo deberán identificarse y cumplir con los requisitos previstos en la convocatoria. No obstante, a efectos administrativos y fiscales, únicamente la persona solicitante será considerada beneficiaria de la beca.

Talde bateko kide izanik eskaera bat aurkezten bada, ezin izango da beste eskaera bat aurkeztu, ez norbanako gisa, ez beste talde bateko kide gisa.

En caso de presentar una solicitud formando parte de un colectivo, no se podrá presentar otra solicitud ni individual ni formando parte de otro colectivo.

2. Eskatzaileek baldintza hauek bete beharko dituzte:

2. Las solicitantes deberán reunir los siguientes requisitos:

a) Trebakuntza sendoa izan behar dute arte plastikoetan eta ikusmen-arteetan.

a) Poseer una sólida formación en artes plásticas y visuales.

b) Europar Batasuneko estatu kide bateko naziotasuna edukitzea.

b) Tener nacionalidad en cualquiera de los estados miembros de la Unión Europea.

c) Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerriren batean erroldatuta egotea, etenik gabe, 2023ko urtarrilaren 1etik hona.

c) Estar empadronada en cualquiera de los municipios del Territorio Histórico de Bizkaia en forma ininterrumpida desde el 1 de enero de 2023.

Baldintza hori ez da beharrezkoa izango 2023, 2024 edo 2025eko deialdietan Bizkaiko Foru Aldundiaren arte plastiko eta ikusmen-arten modalitatean beka jaso duten eskatzaileentzat.

Este requisito no será necesario para las personas solicitantes que hubieran disfrutado de beca en la modalidad de artes plásticas y visuales de la Diputación Foral de Bizkaia en las convocatorias de los años 2023, 2024 o 2025.

d) Adina: 1991 eta 2008 urteen artean jaioa izatea (biak barne).

d) Edad: haber nacido entre el año 1991 y 2008 (ambos incluidos).

e) Onuradun izan daitezkeenak ezin izango dira egon maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan jasotako inguruabarretan.

e) No estar incursas en las causas del art. 12 de la Norma Foral 5/2005 de 31 de mayo.

2. Foru dekretu honen bidez araututako deialditik kanpo geratuko dira pertsona hauek:

2. Quedarán excluidas de la convocatoria regulada por el presente decreto foral:

a) Deialdi honen aurreko urteetan arte plastiko

a) Las personas que hayan disfrutado en años





eta ikusmen-arteen modalitatean hiru beka disfrutatu dutenak Bizkaiko Foru Aldundiaren eskutik.

b) Sexuarengatik edonolako diskriminaziorik sortzeagatik edo berdintasunaren arloan indarrean dagoen araudia ez betetzeagatik, zehapen administratibo, laboral edo penalen bat jaso izan duten pertsonak, zehapenean ezarritako epean zehar.

c) LGTBI pertsonak eta beste kolektibo batzuetako pertsonak diskriminatzeagatik edo tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren arloan indarrean dagoen araudia ez betetzeagatik, zehapen administratibo edo penalen bat jaso izan duten pertsonak, zehapenean ezarritako epean zehar.

anteriores al de la presente convocatoria de tres becas en la modalidad de artes plásticas y visuales concedidas por la Diputación Foral de Bizkaia.

b) Las personas que hayan sido objeto de sanción administrativa, laboral o penal por incurrir en discriminación por razón de sexo, durante el periodo impuesto en la correspondiente sanción o por incumplimiento de la normativa vigente en materia de igualdad.

c) Las personas que hayan sido objeto de sanción administrativa o penal por incurrir en discriminación de las personas LGTBI y de otros colectivos, durante el periodo impuesto en la correspondiente sanción o por incumplimiento de la normativa vigente de igualdad de trato y no discriminación.

II. TITULUA

Araubide juridikoa

3. oinarria. *Aplikatu beharreko araudia.*

Foru-dekretu honetan jasota ez dagoenerako, honako hauek ezarriko dira: Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua, martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzen Erregelamendua, Administrazioen Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, Sektorre Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea, 4/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Administrazio Elektronikoaren esparruan Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionala arautzen duena, 311/2022 Errege Dekretua, maiatzaren 3koa, Seguritasuneko Eskema Nazionala arautzen duena eta beste edozein xedapen arauemaile, berak duen izaeragatik ezartzeko modukoa baldin bada.

TÍTULO II

Régimen jurídico

Base 3. *Normativa aplicable.*

Para todos aquellos aspectos no previstos en el presente decreto foral serán aplicables la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral y el Reglamento de Subvenciones aprobado por el Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, de la Diputación Foral de Bizkaia, así como la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, el Real Decreto 4/2010, de 8 de enero, por el que se regula el Esquema Nacional de Interoperabilidad en el ámbito de la Administración Electrónica, el Real Decreto 311/2022, de 3 de mayo, por el que se regula el Esquema Nacional de Seguridad y cualquier otra disposición normativa que por su naturaleza pudiera resultar de aplicación.





4. oinarria. Arau-haustek eta zehapenak.

Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren IV. Tituluan xedatutakoa ezarriko da, bai eta arau hori garatzen duen erregelamenduaren IV. Tituluan ere.

III. TITULUA

Prozedura

5. oinarria. Eskabideak aurkezteko lekua eta epea.

1. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.3 artikulua arabera, beka eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa bidez aurkeztu beharko dira:

<https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>

Egoitza elektronikoko izapideen katalogoan dago foru-dekretu honen laburpen-fitxa.

2. Eskabideak aurkezteko epea 15 egun naturalekoa izango da, foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

3. Pertsona edo talde bakoitzak eskabide bakarra aurkeztu dezake. Eskabide bat baino gehiago aurkeztuz gero, egindako azkena joko da baliozkotzat, eta gainerakoak ezetsi egingo dira.

4. Eskabideak aurkezteak esan nahi du berariaz eta formalki onartzen direla deialdi honen oinarriak definitzen dituzten baldintzak.

Base 4. Infracciones y sanciones.

En lo referente a infracciones y sanciones se aplicará lo establecido en el Título IV de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, y en el Título IV de su Reglamento de desarrollo.

TÍTULO III

Procedimiento

Base 5. Lugar y plazo de presentación de las solicitudes.

1. De conformidad con lo dispuesto en el artículo 14.3 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, las solicitudes de beca deberán presentarse a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia:

<https://www.ebizkaia.eus/es/inicio>

En el catálogo de trámites de la sede electrónica se encuentra la ficha resumen del presente decreto foral.

2. El plazo de presentación de solicitudes será de 15 días naturales contados a partir del día siguiente al de la publicación del presente decreto foral en el Boletín Oficial de Bizkaia.

3. Cada persona o colectivo sólo podrá presentar una única solicitud. En caso de presentar más de una solicitud se considerará como válida la última realizada, quedando desestimadas las restantes.

4. La presentación de solicitudes supone la aceptación expresa y formal de las condiciones que definen las bases de la presente convocatoria.





6. oinarria. *Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak eta betekizunak.*

Base 6. *Documentación a acompañar a la solicitud y requisitos.*

1. Eskabideak aurkezteko, 39/2015 Legearen 66.6 artikuluan ezarritakoarekin bat, deialdi honen berariazko eredura egokitu beharko dira, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa bete eta aurkezteko:

1. Las solicitudes deberán, de acuerdo con lo previsto en el artículo 66.6 de la Ley 39/2015, ajustarse al modelo específico de la presente convocatoria, disponible para su cumplimentación y presentación en la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia:

<https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>

<https://www.ebizkaia.eus/es/inicio>

2. Eskabideekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

2. Las solicitudes deberán ir acompañadas de la siguiente documentación:

a) Egingo den proiektuaren memoria honako hauek zehaztuta:

a) Memoria del proyecto a, con especificación de:

1) Proiektuaren izenburua/identifikazioa.

1.º Denominación/Identificación del proyecto.

2) Lortu nahi diren helburuak.

2.º Objetivos que se persiguen.

3) Kronograma.

3.º Cronograma.

4) Egiteko lekua eta herria.

4.º Lugar y localidad de realización.

b) Epaimahaiak baloratzeko, eskatzaileek honako hauek aurkeztu beharko dituzte:

b) A efectos de su valoración por parte del tribunal, las solicitantes deberán aportar:

1) Motibazio-gutun bat, gehienez 500 bat hitzekoa, zeinean eskatzaileak azaltzen baitu zergatik aurkeztu duen eskabidea.

1.º Carta de motivación, de una longitud máxima aproximada de 500 palabras, en la que la solicitante relate las razones y motivos por los que presenta su solicitud.

2) Eskatzailearen edo talde artistikoren curriculum vitae.

2.º Currículum vitae de la persona solicitante o del colectivo artístico.

3) Bere obraren dokumentazio grafikoa edo ikus-entzunezkoa.

3.º Documentación gráfica o audiovisual de su obra.

c) Taldeen kasuan eskatzen den dokumentazio osagarria:

c) Documentación adicional requerida para colectivos:

Taldeko kideen zerrenda izenduna, NANA edo AIZa adierazita.

- Relación nominal de integrantes del colectivo, con DNI/NIE.

-Zer pertsona izendatu den eskaera aurkezteko

- Designación de la persona que presentará la





eta ordezkari jarduteko; eskaera taldeko kide guztiek sinatu behar dute.

d) Hala badagokio, legezko edo borondatezko ordezkaritza zuzenbidean baliozkoa den edozein bitartekoren bidez egiaztatu beharko da.

3. Behar bezala bete beharko da gastuen aurrekontuari dagokion atala; bertan agertzen diren kontzeptuen eta banakapenaren arabera.

7. oinarria. Dokumentazio egiaztagarria.

Dauden datu-bitartekaritarako sistemen bidez, Bizkaiko Elkarreragingarritasun Nodoa erabilita, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kultur Ekintzako Zerbitzuak egiaztatu eta kontsultatu egingo ditu administrazio publikoek interesdunei eta, hala badagokio, haien ordezkari, dekretu honen izapidetze administratiborako beharrezkoak direnean, interesdunak modu espresuan kontra dagoela adierazten ez badu. Kontra egonez gero, behar diren datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko dira.

Datu horiek honako hauek dira:

- a) Identitateari buruzko datuak.
- b) Banku kontuaren titulartasun datuak.

Eskatzaileak uko egiten badio administrazioak bere bitartekoak erabiliz bankuko datuak egiaztatzeari, kasu horietan bakarrik, banku-helbideratzearen fitxa behar bezala beteta aurkeztu beharko da.

- c) Errola-ziurtagiri historikoa.
- d) Zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

e) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

solicitud y que actuará como representante, firmada por todas las integrantes del colectivo.

d) En su caso, la representación legal o voluntaria que deberá acreditarse por cualquier medio válido en derecho.

3. Se deberá cumplimentar debidamente el apartado correspondiente al presupuesto de gastos, conforme a los conceptos y desglose que en el mismo figuran.

Base 7. Documentación verificable.

El Servicio de Acción Cultural del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte, mediante los sistemas de Intermediación de datos disponibles, a través del Nodo de interoperabilidad de Bizkaia, realizará las comprobaciones y consultas pertinentes de los datos de las interesadas, y, en su caso, de sus representantes, que resulten necesarias para la tramitación administrativa del presente decreto que obren en poder de las Administraciones Públicas, salvo oposición expresa, en cuyo caso, deberán aportarse los datos o documentos correspondientes.

Los referidos datos son:

- a) Los datos de identidad.
- b) Los datos de titularidad de la cuenta bancaria.

En caso de que la solicitante se oponga a que esta Administración compruebe dichos datos bancarios por sus propios medios, deberá aportarse ficha de domiciliación bancaria debidamente cumplimentada.

- c) Certificado de empadronamiento histórico.
- d) Certificado de estar al corriente de las obligaciones tributarias.

e) Certificado de estar al corriente de las obligaciones con la Seguridad Social.





Arrazoi teknikoak direla eta, ezinezkoa bada elkarreragingarritasunera jotzea, Kultur Ekintzako Zerbitzuak izapideak egiteko beharrezkotzat jotzen dituen datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu.

Datu pertsonalak eskuratzeko modua bat etorriko da Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan (EB) eta erregelamendu hori garatzen duen araudian ezarritakoarekin bat, bai eta Datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat etorritz.

8. oinarria. *Eskabideak zuzentzea eta hobetzea.*

1. Eskabideak behar bezala beteta ez badaude, edo foru dekretu honetan eskatutako agirietakoren bat aurkeztu ez bada, errekerimendua egingo zaio eskatzaileari, hamar (10) egun balioduneko epearen barruan akatsa zuzendu edo beharrezko agiriak aurkez ditzan. Era berean, ohartaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, eskabidea atzera egin duela ulertuko dela eta, behin ebazpena emanda, eskabidea artxibatu egingo dela.

2. Edonola ere, Kultur Ekintzako Zerbitzuak aurkezten diren eskabideak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarri edo dokumentazio guztia eskatu ahal izango du.

9. oinarria. *Diru-laguntza emateko prozedura.*

Bekak norgehiagoka araubidean emango dira, hain zuzen ere, epaimahai kalifikatzailea eratuko da eta hark aurkezten diren eskabideak erkatuko ditu eta, foru dekretu honetan ezarritako irizpideen arabera. Puntuaziorik altuena lortzen dutenei emango dizkie bekak, lehentasun-

En todo caso, si por causas técnicas la interoperabilidad no fuera posible, el Servicio de Acción Cultural podrá requerir datos o documentos necesarios para la tramitación.

Cualquier acceso a los datos personales se realizará de conformidad con lo previsto al respecto en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y su normativa de desarrollo, así como en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales.

Base 8. *Subsanación o mejora de las solicitudes.*

1. Si las solicitudes no se formalizaran completamente o faltara alguno de los documentos exigidos por el presente decreto foral, se requerirá a la solicitante para que en el plazo de diez (10) días hábiles subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, archivándose la misma, previa la correspondiente resolución.

2. En todo caso, el Servicio de Acción Cultural podrá solicitar cuanta información complementaria o documentación considere necesaria para la adecuada comprensión y evaluación de las solicitudes presentadas.

Base 9. *Procedimiento de concesión.*

La concesión de becas se realizará en régimen de concurrencia competitiva, esto es, mediante la constitución de un tribunal calificador que procederá a la comparación de las solicitudes presentadas, a fin de establecer una prelación entre las mismas, atendiendo a los criterios de





hurrenkera ezarri ondoren eta aurrekontuko partidari izendatutako zenbatekoa muga izanik.

valoración fijados en el presente decreto, adjudicando las becas a aquellas personas que hayan obtenido mayor puntuación, teniendo como límite la cuantía consignada en la correspondiente partida presupuestaria.

Ondorioz, aurrekontu-partida horren mugak eragozten badu dekretu honetan ezarritako balorazio-irizpideen arabera ezarritako gutxieneko puntuazioa lortu duten eskabide guztiei bekak esleitzea proposatzea, puntuaziorik handiena lortu dutenei esleitzea proposatuko da, eskabide bakoitzaren lehentasun-hurrenkerari jarraituz, dagokion zenbatekoa agortu arte.

En consecuencia, cuando el límite de la citada partida presupuestaria impida proponer la adjudicación de las becas a la totalidad de las solicitudes que hayan obtenido la puntuación mínima establecida por los criterios de valoración fijados en el presente decreto, se propondrá su adjudicación a las de mayor puntuación, siguiendo el riguroso orden de prelación de cada solicitud, hasta agotar la cuantía correspondiente.

Era berean, zenbait eskabidek lehentasun-ordena bera badute puntuazio bera lortu dutelako, eta puntuaziorik handieneko eskabideei dagozkien bekak esleitu ondoren, baldin eta haietarako dagoen zenbatekoa ez bada iristen dagozkien beken guztizko zenbatekoari erantzuteko, horiei aplikatutako ehuneko murriztuko da, harik eta erabilgarri dagoen zenbatekoa agortu arte.

Asimismo, cuando varias solicitudes tengan el mismo orden de prelación por haber obtenido la misma puntuación y, una vez adjudicadas las becas correspondientes a las solicitudes de mayor puntuación resulte que la cuantía disponible para ellas no alcance para atender el importe total de las becas que les corresponden, se procederá a reducir el porcentaje aplicado a estas, hasta agotar la cuantía disponible.

10. oinarria. Ebaluazio-irizpideak.

Base 10. Criterios de valoración.

1. Aurkeztutako proiektuen ebaluazioa egiteko, beheko irizpideak eta haien haztapena hartuko dira kontuan. Gehienez, 10 puntu emango dira, honela banatuta:

1. La valoración de los proyectos presentados se efectuará conforme a los siguientes criterios y su correspondiente ponderación, que, sobre un máximo de 10 puntos, se establece como se señala a continuación:

a) Eskatzailearen ibilbidea: gehienez, 3 puntu.

a) Trayectoria de la solicitante: hasta 3 puntos.

b) Sorkuntza-kalitatea: gehienez, 3 puntu.

b) Calidad creativa: hasta 3 puntos.

c) Kontzeptua (idea eta argumentazio-koherentzia): gehienez, 2 puntu. Alderdi honetan, proiektua garapen berrikoa izatea eta beste deialdi batzuetan aurkeztu ez izana ere baloratuko da.

c) Concepto (idea; coherencia argumentativa): hasta 2 puntos. En este punto se valorará también que sea un proyecto de nuevo desarrollo, no presentado en otras convocatorias.

d) Proiektuaren bideragarritasuna: gehienez, 2 puntu.

d) Viabilidad del proyecto: hasta 2 puntos.





2. Epaimahaiaren iritziz gutxienez ere 7 puntu lortzen ez dituzten proposamenak ezetsi egingo dira.

2. Las solicitudes cuyos proyectos no alcancen un mínimo de 7 puntos, a juicio del tribunal calificador, serán desestimadas.

3. Onuradun bakoitzari eman ahal zaion gehieneko zenbatekoa aurrekontu araztuaren % 95 izango da, eta ez da kopuru hauek baino handiagoa izango:

3. El importe máximo a conceder por persona beneficiaria será el 95 % del presupuesto depurado, y no superará las siguientes cuantías:

a) Hamasei mila (16.000,00) euro atzerrian egingo diren proiektuen kasuan.

a) Dieciséis mil (16.000,00) euros, para proyectos a realizar en el extranjero.

b) Hamar mila (10.000,00) euro Bizkaian edo Estatuko gainerako lekuetan egingo diren proiektuen kasuan.

b) Diez mil (10.000,00) euros, para proyectos a realizar en Bizkaia o en el resto del Estado.

Ematen den diru-laguntza ezin da izan eskatutako zenbatekoa baino handiagoa izan.

La cuantía concedida no podrá superar el importe solicitado.

11. oinarria. *Aholkularitza.*

Base 11. *Asesoramiento.*

Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Saileko Kultur Ekintzako Zerbitzuak behar den laguntza teknikoa edo aholkularitza emango du foru-dekretu honekin lotutako edozein zalantza edo kontsultaren gainean. Horretarako, helbide hau dago erabilgarri webgunean:

El Servicio de Acción Cultural del Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte prestará el apoyo técnico o asesoría necesaria, ante cualquier duda o consulta referida al presente decreto foral. A estos efectos se encuentra disponible la siguiente dirección en la página web:

<http://www.bizkaia.eus/laguntzaileKulturEkintza>

<http://www.bizkaia.eus/laguntzaileKulturEkintza>

12. oinarria. *Epaimahai kalifikatzailea.*

Base 12. *Tribunal calificador.*

1. Aurkeztutako beka eskabideak aztertu eta ebaluatzeko, epaimahai kalifikatzaile bat eratuko da. Epaimahaikideak Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuak izendatuko ditu, foru-aginduen bidez.

1. Para el análisis y evaluación de las solicitudes presentadas de becas, se constituirá un tribunal calificador cuyas personas integrantes serán designadas por la diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte mediante orden foral.

Epaimahai hori osatzen duten pertsonak behar besteko gaitasun teknikoa, administratiboa, funtzionala eta zuzendaritzakoa izango dute eskabideetan eskatzen diren betekizunak behar bezala baloratzeko eta deialdi honen xede diren proiektuak baloratzeko.

Las personas integrantes del mismo contarán con la capacidad técnica, administrativa, funcional y directiva suficiente para la adecuada apreciación de los requisitos exigidos en las solicitudes y valoración de los proyectos objeto de la presente convocatoria.





Halaber, izendapen horiek egiteko, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 44 artikuluan ezarritakoa beteko da.

2. Epaimahai kalifikatzaileak, bekak adjudikatzeko irizpideak kontuan hartuta, aurkeztutako eskabide bakoitzak lortutako puntuazio osoa jasotzen duen zerrenda aurkeztuko du, foru-dekretu honen 9. oinarrian ezarritakoaren arabera jokatu eta behin betiko ebazpena emateko.

13. oinarria. *Ebazpena.*

1. Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 22.4 artikuluan xedatutakoa betez, interesdunek, deialdi honetan, ez dute entzunaldiaren izapiderik izango behin-behineko ebazpen-proposamenaren ondoren, zeren prozeduran ez baitira jaso eta kontuan hartuko interesdunek ekarri dituzten egitateak, alegazioak eta frogak baino.

2. Deialdia ebatzi aurretik, Kultur Ekintzako Zerbitzuak egiaztatuko du ea eskatzaileek egunean dituzten zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzari dagozkionak. Halaber, egiaztatuko du ez direla zordun dirulaguntza itzuli behar dutela-eta. Egiaztapen hori egin ondoren, eskatzailearen batek betebeharrorietako edozein ez duela betetzen ikusten bada, agindeia egingo zaio hamar (10) eguneko epean egoera hori erregulariza dezan, eta ohartaraziko zaio hori egiten ez badu bere eskabidean atzera egindakotzat joko dela, behin ebazpena emanda.

3. Eskabideei buruzko ebazpena emateko eta jakinarazteko epea lau (4) hilabetekoa izango da gehienez, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatuta. Euskara, Kultura eta Kiroleko

Igualmente, se cumplirá lo establecido en el artículo 44 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

2. El tribunal calificador, habida cuenta de los criterios para la adjudicación de las becas, presentará relación de la puntuación total obtenida por cada una de las solicitudes presentadas, con el fin de que se actúe en razón de lo establecido en la base 9 del presente decreto foral y se dicte la resolución definitiva.

Base 13. *Resolución.*

1. No se prevé en esta convocatoria, a efectos de lo dispuesto por el artículo 22.4 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, la resolución, en primer lugar, a través de una propuesta de resolución provisional tras la que se conceda trámite de audiencia a las personas interesadas, puesto que no figurarán en el procedimiento ni serán tenidos en cuenta otros hechos ni otras alegaciones y pruebas que las aducidas por las personas interesadas.

2. Previo a la resolución de la convocatoria, el Servicio de Acción Cultural comprobará que las solicitantes se encuentran al corriente de sus obligaciones tributarias y para con la Seguridad Social, y que no son deudoras por reintegro de subvención. Si como consecuencia de tal comprobación resultare que alguna solicitante incumple cualquiera de tales obligaciones, será requerida para que en el plazo de diez (10) días regularice tal situación con advertencia de que, en otro caso, su solicitud será dada por desistida, previa la correspondiente resolución.

3. El plazo máximo para resolver y notificar la resolución de las solicitudes será de cuatro (4) meses, a contar desde la finalización del plazo de entrega de solicitudes. La resolución será dictada





foru diputatuak emango du ebazpena, epaimahai kalifikatzailearen proposamena kontuan hartuta.

Epe hori eskabideari buruzko ebazpen espresurik eman eta jakinarazi gabe igarotzen bada, eskabidea ezetsizat joko da; hala ere, geroago ebazpen espresua eman ahal izango da.

4. Deialdi hau ebazteko ematen den foru-agindua deialdi publiko honetarako eskabidea aurkeztu duten interesdunei jakinaraziko zaie; horretarako, foru agindu hori, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa agertzeko sistemaren bidez ere helaraziko zaie foru-agindua interesdunei.

Foru-agindu horretan berariaz jasoko da ebazpenak administrazio-bidea agortzen duela eta interesdunak aukerako berraztertzeko errekurtsua jar dezakeela foru agindu horren aurka, Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuaren aurrean, hilabeteko (1) epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsua, bi (2) hilabeteko epearen barruan; epeok jakinarazpena egin eta biharamunean hasiko dira zenbatzen.

14. oinarria. *Beste diru-laguntza batzuekiko bateragarritasuna.*

1. Foru-dekretu honen babesean emandako beka bateragarriak izango dira beste administrazio batzuek edo erakunde publikoek nahiz pribatuek, estatukoek nahiz nazioartekoek, xede bererako ematen dituztenekin. Kasu horretan, eskatzaileak Kultur Ekintzako Zerbituari jakinarazi beharko dio zein diren emandako bekaren edo laguntzaren zenbatekoa, laguntza eman duen erakundea eta beka edo laguntzaz gozatzeko aldia.

2. Hala ere, beka hauek ez dira bateragarriak izango Bizkaiko Foru Aldundiko edozein sailek eskainitako beste beka edo laguntza mota batzuekin, betiere xede bera badute.

por la diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte a propuesta del tribunal calificador.

Si transcurrido dicho plazo no mediara resolución expresa y notificación de la misma, se entenderá que ha sido desestimada, sin perjuicio de que con posterioridad sea resuelta de forma expresa.

4. La orden foral por la que se resuelva la presente convocatoria será notificada a las personas interesadas a los efectos de esta convocatoria pública mediante publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia». También se comunicará a las personas interesadas mediante el sistema de comparecencia en la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia.

Contendrá expresa mención a que la misma agota la vía administrativa, y podrá ser recurrida por la persona interesada, interponiendo contra ella, con carácter potestativo, recurso de reposición ante la diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte, en el plazo de un (1) mes a partir del día siguiente al de su notificación o recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos (2) meses, contados de igual forma.

Base 14. *Compatibilidad con otras subvenciones.*

1. Las becas concedidas conforme al presente decreto foral serán compatibles con otras becas y ayudas, que, en su caso, concedan otras Administraciones, entes públicos o privados, nacionales o internacionales para la misma finalidad. En este caso, la persona solicitante deberá comunicar al Servicio de Acción Cultural la cuantía económica de la beca o ayuda concedida, entidad concedente y periodo de disfrute de la misma.

2. No obstante, estas becas no serán compatibles con otro tipo de beca o ayuda convocada por cualquier departamento de la Diputación Foral de Bizkaia, siempre que tengan el mismo objeto.





3. Beka emateko kontuan hartutako baldintzaren baten aldaketak, eta dena dela, aldi berean beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatuek emandako beste beka edo laguntza batzuk lortzeak, diru-laguntza emateari buruzko ebazpena aldatzea ekar dezakete, foru-dekretu honen bitartez araututako bekei doakien zenbatekoa, bera bakarrik edo beste diru-laguntza edo laguntzaren batekin batera, inola ere ez baita izango erakunde onuradunak garatuko duen jardueraren kostua baino handiagoa.

3. Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de las becas y, en todo caso, la obtención concurrente de otras becas o ayudas otorgadas por Administraciones o entes públicos o privados, nacionales o internacionales, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de la concesión, dado que el importe de las becas reguladas en el presente decreto foral en ningún caso podrá ser de tal cuantía que aisladamente o en concurrencia con otras becas o ayudas en su caso, supere el coste de la actividad desarrollada por la persona beneficiaria.

IV. TITULUA

TÍTULO IV

Beken kudeaketa eta justifikazioa

Gestión y justificación de las becas

15. oinarria. *Ordainketa.*

Base 15. *Pago.*

1. Deialdi hau ebazten duen foru agindua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamar egun balioduneko epean, onuradunak idatziz uko egiten ez badiu, onartu egin dela ulertuko da, eta Kultura Ekintzako Zerbitzuak Ogasun eta Finantza Sailean izapidetuko du ordainketa. Horretarako, ez zaie onuradunei bermerik eskatuko.

1. Si en el plazo de diez días hábiles tras la fecha de publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia de la orden foral que resuelve la presente convocatoria, la beneficiaria no renuncia expresamente y por escrito a la beca, se entenderá que esta queda aceptada, y el Servicio de Acción Cultural procederá a tramitar su abono ante el Departamento Foral de Hacienda y Finanzas, no exigiéndose para ello garantía alguna a las beneficiarias.

Onuradunen batek edo batzuek emandako bekari uko egiten badiote, uko horrek ez du inola ere ekarriko deialdi honen ebazpenaren alderdiak aldatzea.

Si alguna o algunas beneficiarias renunciasen a la beca concedida, dicha renuncia no implicará en ningún caso la modificación de los términos de la resolución de la presente convocatoria.

2. Beka ordainketa egin baino lehen, egiaztatuko da ea onuradunek eguneraturik dituzten zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak. Halaber, egiaztatuko du ez direla zordun diru laguntza itzuli behar dutela-eta.

2. Previo al pago de la beca, se comprobará que las beneficiarias se encuentran al corriente de sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social y que no son deudoras por reintegro de subvención.

Egiaztapena egin ondoren ikusten bada onuradunetako batek betebeharrak horietako edozein ez duela betetzen, errekerimendua

Si como consecuencia de la comprobación efectuada resulta que alguna de las beneficiarias incumple cualquiera de las obligaciones





egingo zaio hamar (10) eguneko epean egoera hori erregulariza dezan, eta ohartaraziko zaio, horrela egiten ez badu, emandako beka jasotzeko eskubidea galduko duela.

3. Ematen diren beken zenbatekoari indarrean dagoen zerga-araudiaren arabera dagokion PFEZren atxikipena aplikatuko zaio.

16. oinarria. *Onuradunaren borondatez itzultzea.*

1. 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 76. artikuluan xedatutakoaren arabera (dekretu horren bidez, Diru-laguntzen Erregelamendua onesten da, 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzen duena), onuradunak bere ekimenez itzuli ahal izango du Bizkaiko Foru Aldundiak emandako beka, foru erakundeak aurretik hala eskatu gabe.

Halakoetan, Bizkaiko Foru Aldundiak beka benetan itzultzen den arte sortutako berandutze-interesak kalkulatuko ditu, aipatutako 76. artikuluan eta 5/2005 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita.

2. Onuradunak ordainketa-gutun bat erabili behar du beka forala bere ekimenez itzultzeko. Ordainketa-gutun hori Kultur Ekintzako Zerbitzuaren bulegoetan izapidetuko da, onuradunak eskabidea aurkeztu eta gero. Ordainketa-gutunean honako hauek adierazi behar dira: itzuli beharreko zenbatekoa (printzipala eta berandutze-interesak), ereduaren kodea eta diru-sarreraren zergatia. Itzuli behar den beka ere aipatu behar da.

3. Bekaren onuradunak finantza-erakunde batean ordainketa egin ondoren, egoitza elektronikoaren bidez diru-sarreraren frogagiria bidali beharko dio Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kultur Ekintzako Zerbitzuari.

señaladas, ésta será requerida para que en el plazo de diez (10) días regularice dicha situación con la advertencia de que, en caso contrario, perdería el derecho a la beca concedida.

3. A los importes de las becas que se concedan se les aplicarán las retenciones de IRPF a que hubiere lugar de conformidad con la normativa fiscal en vigor.

Base 16. *Devolución a iniciativa de la beneficiaria.*

1. De conformidad con lo previsto por el artículo 76 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, la beneficiaria podrá proceder a la devolución voluntaria de la beca concedida por la Diputación Foral de Bizkaia sin el previo requerimiento de esta última.

En este supuesto, la Diputación Foral de Bizkaia calculará los intereses de demora hasta el momento de la devolución efectiva de la beca conforme a lo dispuesto en el referido artículo 76, y según lo establecido en el artículo 34 de la Norma Foral 5/2005.

2. La devolución de la beca a instancia de la beneficiaria se deberá realizar mediante la correspondiente carta de pago que, a su requerimiento, le será tramitada en las dependencias del Servicio de Acción Cultural. En dicha carta de pago se consignará el importe a devolver (principal e intereses de demora), código del modelo y motivo del ingreso haciéndose además referencia a la beca a devolver.

3. Una vez practicado el abono por la beneficiaria de la beca en una entidad financiera, habrá de remitirse a través de la sede electrónica justificante del respectivo ingreso al Servicio de Acción Cultural del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte.





17. oinarria. *Justifikazioa egiteko epea eta era.*

Base 17. *Plazo y forma de justificación.*

Foru-dekretu honen bitartez araututako beken onuradunek honako konpromiso hauek bete beharko dituzte:

Las beneficiarias de las becas reguladas por el presente decreto foral se comprometen a:

1. Beka ematea eragin duen jarduera gauzatzea.

1. Realizar la actividad que motivó la concesión de la beca.

2. Bekaren zenbateko osoa aurkeztutako proiektua garatzeko.

2. Destinar íntegramente el importe de la beca al desarrollo del proyecto presentado.

3. Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako dirulaguntzei buruzko Erregelamenduaren 60. artikuluekin bat etorruta, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren aurrean justifikatzea jarduera egin dela eta beka ematea eragin zuten baldintzak bete direla. Horretarako, beheagoko helbidean jasotako agiria bete eta aurkeztu beharko dira, egoitza elektronikoa, azken eguna 2027ko irailaren 30a izango delarik. Hona helbidea:

3. Conforme al artículo 60 del Reglamento de Subvenciones aprobado por el Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, de la Diputación Foral de Bizkaia, justificar ante el Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia la realización de la actividad y el cumplimiento de las condiciones que motivaron su concesión, a través de la cumplimentación y presentación en la sede electrónica de la documentación que a continuación se relaciona, fijándose como último día para ello el 30 de septiembre de 2027 en la siguiente dirección:

<https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>

<https://www.ebizkaia.eus/es/inicio>

4. Talde artistikoek aurkeztutako proiektuen kasuan, taldeek kideen artean eskaera aurkezteko izendatu duten pertsona arduratuko da funtsak kudeatu, jaso eta zuzen aplikatzeaz eta proiektuaren justifikazio ekonomikoaz, taldearen barruan dauden barne-akordioak gorabehera. Bizkaiko Foru Aldundiak ordezkari horrekin bakarrik izango ditu harremanak ondorio guztietarako.

4. En los proyectos presentados por colectivos artísticos, la persona solicitante designada por éste será responsable de la gestión, recepción y correcta aplicación de los fondos, así como de la justificación económica del proyecto, sin perjuicio de los acuerdos internos que existan dentro del colectivo. La Diputación Foral de Bizkaia solo se relacionará con esta persona representante a todos los efectos.

Jarduera-memorian honako hauek jaso behar dira:

La memoria de actividades constará de:

a) Garatutako proiektuaren kontakizuna, bidezkotzat jotzen den dokumentazio grafiko edo bisual guztiarekin batera.

a) Un relato del proyecto desarrollado, acompañado de cuanta documentación gráfica o visual se considere.

b) Proiektua garatzeko aldian sortu diren gastuen zerrenda, egoitza elektronikoa

b) Una relación de los gastos que se han producido durante el desarrollo del proyecto, por





jasotzen diren kontzeptu eta banakapenarekin. Gastuek bat etorri behar dute eskabidean aurkeztutakoekin.

los conceptos y con el desglose que figura en sede. Esta relación deberá corresponderse con la presentada en la instancia de solicitud.

c) Bizkaiko Foru Aldundiak berak egoki iritzitako laginketa-teknikak aplikatuko ditu frogagiriok egiaztatzerakoan, beka egoki aplikatzeari buruzko zentzuzko ebidentziak lortu ahal izateko. Eta, horretarako, onuradunari eskatu ahal izango dio bidaltzeko egoitza elektronikoen bidez aukeratutako gastu-egiaztariak, bai eta haiek ordaindu izanaren egiaztariak ere.

c) La Diputación Foral de Bizkaia realizará a través de las técnicas de muestreo que estime convenientes, la comprobación de los justificantes que le permitan obtener evidencia razonable sobre la adecuada aplicación de la beca, a cuyos efectos podrá requerir a la beneficiaria la remisión, a través de la sede electrónica, de los justificantes de gasto y pago que se estime oportunos.

18. oinarria. *Beken onuradunen beste betebeharrak.*

Base 18. *Otras obligaciones de las beneficiarias de becas.*

Onuradunak betebeharrak hauek ere izango ditu:

La beneficiaria estará igualmente obligada a:

a) Aurkitzeko moduan egotea, eskabidean adierazitako bitartekoen bidez bekaz gozatzeko aldiaren eginiko lana dela-eta egiten zaion edozein kontsultari erantzuteko.

a) Estar localizable a través de los medios señalados en la solicitud a efectos de atender cualquier tipo de consulta que le sea formulada con relación al trabajo desarrollado durante el periodo de disfrute de la beca.

b) Beka emateko orduan kontuan hartu den edozein alderdi objektibok edo subjektibok aldaketarik izan badu, horren berri egoitzaren bidez ematea Kultur Ekintzako Zerbitzuari.

b) Comunicar por sede al Servicio de Acción Cultural la modificación de cualquier circunstancia tanto objetiva como subjetiva que hubiese sido tenida en cuenta para la concesión de la beca.

c) Kultur Ekintzako Zerbitzuari egoitzaren bidez jakinaraztea edozein administrazio, erakunde publiko edo pribatu batek xede bererako emandako beste beka, laguntza, sarrera edo baliabide batzuk eskuratu dituela.

c) Comunicar por sede al Servicio de Acción Cultural la obtención de otra u otras becas, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad procedentes de cualquier administración, entes públicos o privados

d) Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailari laguntzea, hala eskatzen bazaio, eta kultura arloko edozein informazio ematea (azterlanak, inkestak, datu estatistikoak, etab.).

d) Colaborar con el Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte en aquellos supuestos, en los que le sea requerido, aportando cualquier tipo de información relativa al ámbito cultural (estudios, encuestas, datos estadísticos, etc.).

e) Euskara, Kultura eta Kirol eta Ogasun eta Finantza sailek eta Herri Kontuen Euskal

e) Someterse a cuantas actuaciones de comprobación efectúen los departamentos de





Epaitegiak egiaztatzeko egin dezaketen behar beste jardun onartzea.

Euskera, Cultura y Deporte, y de Hacienda y Finanzas, así como el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

f) Ez aldatzea eskabidean jasotako helburuak, xedeak, ez eta lanak eta abar egiteko lekuak ere, salbu eta, Kultur Ekintzako Zerbitzuak txostena egin ondoren, Euskara eta Kulturako foru-diputatuak horretarako berariazko baimena ematen badu. Kasu horretan, bekaren zenbatekoa hasieran emandako zenbatekoaren berdina edo txikiagoa izango da beti, eta, hala badagokio, soberakina itzuli beharko da.

f) No modificar los objetivos, fines, así como el lugar donde se desarrollarán los trabajos, etc., que figuran en cada solicitud, salvo expresa autorización de la diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte previo informe del Servicio de Acción Cultural. En ese caso, la cuantía de la beca siempre será igual o menor del importe concedido inicialmente debiéndose, en su caso, reintegrar el exceso.

g) Onuradun guztiek konpromisoa hartzen dute, hala badagokio, bekaren gaiari buruzko hitzaldiak emateko, eta erakusketa eta abarretan parte hartzeko, beka amaitu ondorengo bi urteetan. Gehienenez ere, birritan egin beharko dute hori, Foru Aldundiak eskatzen dienean eta curriculum vitaean, Bizkaiko Foru Aldundiko bekadun izaera aipatu behar da.

g) Todas las beneficiarias se comprometen, en su caso, a impartir conferencias, participar en exposiciones, etc., sobre el tema de la beca, durante un plazo de dos años a partir de su finalización, dos veces como máximo cuando así lo solicite la Diputación Foral, así como a mencionar en su curriculum vitae su condición de persona becaria de la Diputación Foral de Bizkaia.

h) Emakumeen eta gizonen tratamendua, protagonismoa eta balorazioa baliokideak izan daitezen zaintzea, eta berdintasuna, presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, eta generoaren rol eta identitateen aniztasuna balio dituen irudi bat sustatzea idatzizko zein ahozko komunikazioetan, ikonografian, publizitate-ekintzetan, barruko zein kanpoko komunikazio formal eta informalean, eta proiektuari edo jarduerari lotutako edo proiektua edo jarduera egiteko sortutako materialetan.

h) Velar por que el tratamiento, protagonismo y valoración de mujeres y hombres sea equivalente y el fomento de una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad, y pluralidad de roles e identidades de género, tanto en la información escrita, oral, iconográfica, acciones publicitarias, comunicación interna y externa, formal e informal como en los materiales generados o relacionados con la ejecución del proyecto o actividad.

i) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 3. artikuluan aurreikusitako printzipio orokorrak betetzea, bereziki hizkuntza ez sexista erabiltzera hizkera mota guztietan (dokumentuetan, ikus-entzunezkoetan, eta abar), edozein euskarritan, idatzizkoetan zein digitaletan.

i) Asumir, los principios generales previstos en el artículo 3 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, y especialmente la obligación de asumir un uso no sexista de todo tipo de lenguaje (documental, visual, etc.) en cualquier soporte escrito o digital generado.

j) Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusiak deitutako bilera, foro eta gainerako

j) Asistir a las reuniones, foros, comisiones y demás actos de coordinación convocados por la





koordinazio-ekitaldietara joatea.

Dirección General de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia.

k) Bizkaiko Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 13. artikuluan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsi den Diru-laguntzen Erregelamenduaren 54. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako gainerakoak.

k) Las demás previstas en el art. 13 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral de Bizkaia y en los artículos 54 y siguientes del Reglamento de Subvenciones aprobado por el Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, de la Diputación Foral de Bizkaia.

19.oinarria. *Itzulketa.*

Base 19. *Reintegro.*

1. Zenbait kasutan bekadun izatearen ondorioz jasotako diru-kopurua eta dagozkion berandutze-interesak itzuli beharko dira, baldin eta aurreko oinarrietan ezarritako betebeharren bat edo batzuk betetzen ez badira edo Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan edo Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzen Erregelamenduan aurrekusitako kausaren bat gertatzen bada:

1. Procederá el reintegro de la cantidad recibida por la beca y los intereses de demora correspondientes, cuando se incumplan alguna o algunas de las obligaciones establecidas en las bases anteriores o se incurra en alguna de las causas previstas en el artículo 33 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, o en el Reglamento de Subvenciones aprobado por el Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, de la Diputación Foral de Bizkaia, entre otras:

a) Beka lortzeko, bete beharreko baldintzak faltsutu edo laguntza jasotzea galaraziko luketen datuak ezkatatzen direnean.

a) Obtención de la beca falseando las condiciones requeridas para ello u ocultando aquellas que lo hubieran impedido.

b) Xedea, jarduera, proiektua edo beka emateko funtsa den jokoera oso-osorik edo zati batean betetzen ez denean.

b) Incumplimiento total o parcial del objetivo, de la actividad, del proyecto o la no adopción del comportamiento que fundamentan la concesión de la beca.

c) Justifikazioaren betebeharra ez betetzea.

c) Incumplimiento de la obligación de justificación.

d) Dirulaguntza nahiko edo behar bezala justifikatzen ez bada, justifikatu ez den bekaren zatia eta sortutako berandutze-interesak itzuli beharko dira, horretarako Bizkaiko Foru Aldundiko Kultur Ekintzako Zerbitzuak errekerimendu egin ondoren.

d) La justificación insuficiente o deficiente conllevará la obligación de reintegro, incluidos los correspondientes intereses de demora, de la parte de la beca no justificada, previo requerimiento por parte del Servicio de Acción Cultural de la Diputación Foral de Bizkaia.





e) Ezarritako kontrol-jarduerak egiteari uko egiten bazaio edo eragozpenak jartzen badira. e) La negativa u obstrucción a las actuaciones de control establecidas.

f) Foru-dekretu honetan ezarritako gainerako baldintzak ez betetzea. f) Incumplir los demás supuestos previstos en el presente decreto foral.

2. Bekaren xede den proiektuaren kostua baino finantzaketa handiagoa jasotzen bada, laguntza itzuli egin beharko da. 2. El exceso de financiación con relación al coste del proyecto para el que se ha concedido la beca también constituirá motivo de reintegro.

3. Honako arrazoi hauek direla-eta ere itzuli beharko da jasotako laguntza: 3. Asimismo podrán ser causa de reintegro:

a) Kultur Ekintzako Zerbitzuak ez badu positiboki baloratzen bekaren onuradunak aurkeztutako jardueren memoria, laguntza osorik itzuli beharko da. a) Que el Servicio de Acción Cultural al efecto no valore positivamente la memoria de actividades presentada por la beneficiaria, lo que será motivo de reintegro total.

b) Onuradunak ez badu osorik garatzen diruz lagundutako proiektua, gaixotasuna dela-eta edo Kultur Ekintzako Zerbitzuak justifikatuz jotzen dituen beste arrazoi batzuk direla-eta. Kasu horretan, itzuli beharreko kopurua proportzionalki kalkulatu da, diru-laguntza jaso duen jarduera bekaren helburuari eta xedeari egokitu ez zaion aldiaren arabera. b) Que la beneficiaria no desarrolle la totalidad del proyecto subvencionado por enfermedad y otros motivos que el Servicio de Acción Cultural considere justificados. En tal caso, la cantidad a reintegrar deberá ser proporcional al tiempo en que la actividad subvencionada no se haya ejecutado conforme al objeto y finalidad de la beca.

4. Dirua itzultzeko prozedura dirulaguntzak arautzen dituen araudi aplikagarrian xedatutakoaren arabera izapidetuko da. 4. El procedimiento de reintegro se tramitará con sujeción a lo dispuesto en la normativa reguladora de subvenciones que resulte de aplicación.

20. oinarria. *Datu pertsonalen babesa.*

Base 20. *Protección de datos de carácter personal.*

Aplikatu beharrekoa izango da Datu Pertsonalen Babesari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, eta aurrekoetan xedatzen ez denerako edo aurrekoen ordeztatu aplikatu beharreko gainerako araudia. Será de aplicación la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, así como la restante normativa que resulte de aplicación con carácter subsidiario o supletorio.

21. oinarria. *Aurrekontuko partida.*

Base 21. *Partida presupuestaria.*

1. 2026. urtean bekak emateko ezarri den aurrekontuko muga hirurogeita bat mila 1. El límite presupuestario para la concesión de becas en el año 2026, se establece en la cuantía





(61.000,00) euro da, 2026ko ekitaldiko aurrekontuko 0405 G/334104/46200 aurrekontuko partidaren kontura, 2007/0213 proiektua.

de sesenta y un mil (61.000,00) euros, con cargo a la partida presupuestaria 0405 G/334104/46200 proyecto 2007/0213 del presupuesto de 2026.

